

ABORTUAREN DEBEKUA

Haserrea Polonian eta Bolivian, emakume baten heriotzagatik eta 11 urteko haur baten haurdunaldiagatik

 **JENDARTEA** / Ainara Lertxundi

Polonian, 30 urteko emakume bat hil da legeak ez duelako abortua baimentzen nahiz eta fetuak malformazioak izan. Bolivian, 11 urteko neskato bat ama izateko zorian dago bere aitonaordeak bortxatu ondoren. Eliza katolikoaren presioa hain handia izan da, non familiak abortatzeko eskubideari uko egin dion.

Poloniako Auzitegi Konstituzionalak iaz abortua debekatu zuen ia kasu guztietarako, baita fetuak malformazioak dituenen edo atzeraezinezko kalteekin edo bizitzarekin bateragarria den gaixotasun batekin jaio daitekeen ere. Muturreko legedi honek haurdun zegoen 30 urteko emaku-

me baten heriotza eragin du Pszczyna herrian, hegoaldean. Jolanta Budzowskak, biktimaren familiaren abokatuak, gertatutakoa Auzitegi Konstituzionalaren epaiaren ondorio dela salatu du. Aditzera eman denez, pasa den irailaren 22an, 22 astez haurdun zegoen emakume bat Pszczynako ospitale-
ra eramán zuten likido amniotikoa galtzen ari zelako. Medikuek bazekiten fetuak

Goian, ezkerrean, Poloniak onartutako abortuaren kontrako legea salatzeko Bruselan, Europako Parlamentuaren aurrean, 2020ko azaroaren 25ean egindako protesta. Behean, pasa den urtarrilaren 21ean Varsoviako abortuaren alde eginiko mobilizazioa. Alboan, Madrilén pasa den ekainean Poloniako emakumeen alde eginiko ekimena.
DPA-EUROPA PRESS-Ricardo RUBIO / EUROPA PRESS





malformazioak zituela, baina behin ospitalean, aldeztu aurretik egindako diagnostikoa berretsi zuten. Egoera horretan egon arren, ez zioten aborturik egin, Konstituzionalak hala agintzen duelako. Fetua bere kabuz hil arte itxoin zuten medikuek. Fetua hil eta 24 ordura, ama infekzio orokortu baten ondorioz hil zen.

«Medikuek ez zioten umetokia hustu fetua hil zen arte, Konstituzionalak ez baitu hori egitea baimentzen nahiz eta fetuak kanpoan bizitzeko aukerarik ez izan. Abortu legala ez da posible», plazaratu dute neskaren abokatuek.

Ospitaleko zuzendaritzak familiaren minarekin eta dolauekin bat egin zuen. «Medikuek eta emaginek euren esku zegoen guztia egin zuten pazientearen eta bere umetxoaren bizitza salbatzeko. Haurdunaldia eten ahal izateko legediaren inguruko balorazioak beste kontu bat dira. Hartutako erabaki guztiak indarrean

dagoen araudiaren arabera izan ziren», nabarmendu du ohar batean. Familiak adierazi duenez, Izabela izenez identifikatu duten emakumeak ospitalean zegoen bitartean senideei bidalitako mezu pribatuetan azaldu zienaren arabera, «medikuak zer gertatuko zen zain zeuden» eta lehenengo fetuaz arduratu ziren eta ondoren berataz.

Heriotza irailean gertatu zen arren, orain zabaldu da berria. Aslehen gauean «Ezta bat gehiago ere» lelopean protestak deitu zituzten emakumeen eskubideen aldeko defendatzaileek Poloniako hainbat lekutan, Varsovian eta Krakovian, esaterako. Mobilizazio gehiago izan ziren asteartean. Gobernuan dagoen Justizia eta Bakea (PiS) partiduaren diputatua den Marek Suskik honakoa esan du: «Zoritxarrez, gaur egun ere emakumeak erditzean hil egiten dira». PiS buru zela, 119 diputatuk Konstituzionalean helegitea aurkeztu zuten 2019an, ordura arte

indarrean zegoen abortu legearen kontra. Legeak haurdunaldia-
ren etenaldia aurreikusten zuen fetuak gaixotasun larria eta desgaitasunen bat izateko arrisku handia zuenean. 2019an Polonian 1.110 abortu egin ziren eta horietatik %97 malformazioengatik izan ziren. Legearen aldaketarekin, abortua bi kasutan baino ez da legekoa: emakumearen bizitza arriskuan badago edo haurdunaldia intzestuen ondorio bada.

BORTXATUTA ETA HAURDUN BOLIVIAN

Azken asteotan, Bolivian 11 urteko neskato baten haurdunaldiak zalaparta handia sortu du. Kasu honetan, abortatzeko eskubidea aitortu diote, adin txikikoa izateaz gain, haurdunaldia bortxaketa batengatik izan baita. Bere aitonaordearen zaintzapean zegoela, sexu eraso biktima izan da Ypacani hirian. Eliza katolikoaren presioaren eraginez, neskatoaren amak eta neskatoak berak abortuari uko egin diote, nahiz eta hasieran abortatzea eskatu eta horretarako lehenengo pilula hartu. Abortua gauzatzeko hiru pilula behar dira, baina lehena hartu zuela, artzapezpikutzak neskatoa estutu zuen bere erabakian atzera egin dezan. Elizak kudeatzen duen erakunde batera eraman dute, eta bai berataz bai jaiotzeko dagoen umetxoaz arduratuko direla argudiatu du Elizak. Jada 21 astez hardun dago. Boliviako legediaren arabera, haurdunaldia 22. astera arte eten daiteke.

Boliviako Herriaren Defendatzailea den Nadia Cruzek hiru helegite aurkeztu ditu abortua gauzatu ahal izateko, «neskatoa amaren, senideen edo edozein talde erlijiosoren eraginetik aldentuz eta babestuz». Justiziari «lehenbailehen» erabaki bat hartzeko eskatu dio. Bigarren helegitean, Giza Eskubideen Auzitegi Interamerikarrari Bolivia-

Poloniako Konstituzionalak debekatu egin du fetuak malformazioak dituenen abortatzea ere. Medikuek gaizki zegoen fetua hil arte itxaron zuten, eta ama 24 ordura hil zen

Bolivian, Elizaren presiopean aitonaordeak bortxatu zuen neskatoaren familiak atzera egin du abortatzeko asmoan. Neskatoa babesteko neurriak eskatu digu Herri Defendatzaileak

ko Estatuaren kontrako neurriak hartzea eskatzen dio, neskatoaren bizitza, osasuna eta duintasuna arriskuan daudelako. Horrekin batera, abortatzeko asmoarekin lehenengo al-dian joan zen ospitaleko medikuen kontra, haurren eta nerabeen eskubideak defendatzea ardura duten Santa Cruzeko funtzionarioen kontra eta neskatoaren amaren kontrako salaketa ipini du Herri Defendatzaileak, adin txikikoaren eskubideak urratzeagatik.

Nazio Batuen datuen arabera, eskualdean nerabeen artean haurdunaldi tasa altuenetarikoa duten herrialdeetako bat da Bolivia: 15 eta 19 urte bitarteko 100 biztanleetatik 88. Aurten, urtarritetik uztaile, nerabeen artean 22.221 haurdunaldi erregistratu ditu Osasun Ministerioak.

Gertakari honen harira, Boliviako Emakumearen Etxeak gogorarazi duenez, 2020an 18 urte baino gutxiago zuten gazteen 39.999 haurdunaldi egon ziren. Egunean 104 neskato haurdun gelditzen dira eta horietatik seik 13 urte baino gutxiago dute. Nazio Batuek nabarmendu dute adin txikiko bati bere borondatearen kontrako haurdunaldiarekin jarraitzea behartzea tortura ekintza bat dela.

Bi testuinguru oso desberdin badira ere, Polonia eta Bolivia emakumeen eskubideen urraketa erakusle bihurtu dira egunotan, baita protesten agertoki ere. Abortatzeko eskubidea eta Elizaren indarra beste behin ere mahai gainean jarri dituzte.